

BALIOZKO PROPOSAMENA

Barik eta Bizkaiko autobusen, trenen eta taxiren informazioa eta hainbat ezaugarri gehiago garatzearen ahalmena zure mugikorretik.

Zure noranzkoa zein den jakiteko zailtasunak dituzu? Transpowl aplikazioarekin hori ez da gertatuko! Gure aplikazioa informazioa izateaz aparte zein metro geltokira joan behar zaren jakingo duzu. Barika mugikorretik rekargatu eta, gainera, mugikorrarekin Barikaren tornua pasatuko duzu QRL batekin. Gure abantailarik handiena hori izango da, mugikorretik dena kontrolatzea.

Aplikazioa erabiliz, gure noranzkoa zein den aukeratzean, hau erakutsiko digu bertara heltzeko ditugun aukera guztiak; adibidez, Bilboko Moyua plazara joan nahi badugu, metroa noiz eta non hartu behar dugun gure kokalekutik, zein geltokian jaitsi behar garen edo hurbil ditugun busen geltokiak erakutsiko dugu, baina beti aukera hoberena azpimarratzen.

Gure enpresa ez da berritzaileena, baina bada erosoena. Lortu egin duguna hainbat zerbitzu ezberdinak bateratzea da eta, honi esker, erraztasun handiagoa lortu dugu garraioen erabileran. Gure aplikazioa oso erraza da erabiltzen, bi urteko ume bat erabili ahalko luke ere!

Proposatutako arazoa, guztiok dugun arazo bat da, beraz, gure bezeroak, gure ideia ezagutzean, honen beharra izango dute. Transpowl, aukera asko ematen ditu eta hori, gure ikuspuntutik, gure punturik indartsuena da.

Gainera, oso garbia da eta informazioa modu argian erakusten du, erabiltzaileak erraz ikusteko. Aplikazioa lortzeko, ez da beharrezkoa dirurik ordaintzea, bidaia egitean ordainduko da